

ESKOLA BIDEEN PROIEKTUAK GAUZATZEKO GIDA



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO



Umeek eskoletara joateko erabiltzen dituzten ibilbideetan **segurtasuna eta autonomia** bermatzeko asmoz eta umeek hirian duten garrantziaz jabetuta, **eskola bideak gauzatzeko gida** hau helerazi nahi die Bilboko ikastetxe guztiei Bilboko Udalak.

Eskola bideen proiektuak sortu eta abiarazteko asmoarekin, eta bere inplementazioan eraginkortasuna eta arrakasta izateko, gida honek eskola bide proiektu bat garatzeko eman behar diren pausoen orientabide, printzipio eta jarraibideak azaltzen dizkigu. Hala ere, zehaztutako irizpide eta gomendio orokorrak ikastetxe bakoitzeko errealitate zehatzera egokitu beharko dira.

Argitalpen hau, Bilboko ikastetxeentzat eta izaera honetako proiektu batean parte hartu nahi duten hiriko pertsona, entitate eta taldeentzat da; hau da: **hezkuntzako, hirigintzako edo mugikortasuneko teknikari eta profesionaleentzat ez ezik, familientzat eta gizarte-entitateentzat ere bada.**



AURKIBIDEA

1.	ZER DIRA ESKOLA BIDEAK?	2
2.	ZERGATIK ESKOLA BIDEAK?	2
3.	NORK HARTZEN DU PARTE ESKOLA BIDEEN PROIEKTU BATEAN?	4
4.	ESKOLA MAILAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN BESTE MODALITATE BATZUK	5
5.	METODOLOGIA – INPLEMENTAZIO SEKUENTZIA URRATSEZ URRATS	8
6.	NOLA LAGUNTZEN DU BILBOKO UDALAK?	15
7.	FINANTZAKETA	16

1. ZER DIRA ESKOLA BIDEAK?

Autonomia, elkartasuna, elkarbizitza ona eta jasangarritasuna abiapuntu izanda, balioetan hezteko eta prestakuntza emateko hiri-proiektuak dira. Europako herrialde batzuetan garatzen ari den ekimen honek, umeak ikastetxeetara autonomia osoz oinez edo bizikletaz joatea sustatu eta erraztu nahi du, adierazitako eta egokitutako ibilbideetatik, era seguru eta atseginean.

Eskola bidea **Oinezkoen Eskubideei buruzko Gutun Europarraren** barnean dago. Honen helburua, ibilgailua alde batera utzita, herritarren eta hiriaren arteko harmonia berreskuratzea da; hori ikuspuntu pedagogikotik ikusita eta Bilbo parte den **Hiri Hezitzaileen Sareak** zehaztutako helburuekin bat etorrita.

Testuinguru honetan, **Bilboko Udalak**, herritartasun aktiboaren barruan balioetan hezteko sustatzeko estrategia bezala erabiltzen ditu eskola bideen proiektuak

2. ZERGATIK ESKOLA BIDEAK?

Ingurune lagunkoia eratzen dute



Ikasleak ikastetxeetara segurtasun eta erosotasun osoz heltzea bermatzen dute

Umeen autonomia sustatzen dute



Eguneroko ibilbideetan umeen autonomia eta parte-hartzea sustatzen dute

Guztion osasuna hobetzen dute



Ingurua hobetzen dute eta ohitura osasungarriak sustatzen dituzte; adibidez, umeen eta auzokoan mugikortasun aktiboa (oinetz eta bizikletaz)

Trafikoa gutxitzen dute eta hiriko ingurumena hobetzen dute



Ikastetxera modu jasangarrian joatea bultzatzen dute, gehienbat oinez eta autoak zentzuz erabiliz

Arlo pedagogikoan, eskola bideek haxe lortu nahi dute:



3. NORK HARTZEN DU PARTE ESKOLA BIDEEN PROIEKTU BATEAN?

UMEEK:

Ikastetxe bakoitzak erabaki beharko ditu heziketa-ekintza honetan parte hartuko duten kolektibo guztietakoen adin zehatzak, baina, hala ere, proiektu honek ikasle guztiengan izango du eragina.

FAMILIEK:

Ikastetxeko familia guztiek. Hauen parte-hartzea IGEen bitartez bideratu daiteke. Parte-hartze maila desberdinak daude:

- › Ibilbideen segurtasunaren balorazioa egitea.
- › Ibilbideen erabiltzaileak.

IKASTETXEAK (IRAKASLEAK, ZUZENDARITZA):

Garrantzitsua da, eskola bideen helburuak curriculumeko arloetan barneratu ahal izatea eta proiektuaren diagnostiko eta diseinu-fasean, ikasleekin parte hartzeko dinamikak egin ahal izatea: lana ikasgeletan, inguruaren azterketa...

Ikastetxeak lan aktiboa egin behar du proiektuaren fase eta proposamen desberdinetan.

AUZOKO ELKARTEEK ETA ESTABLEZIMENDUEK:

Auzoko elkarteek eta eskola bidean zehar dauden establezimenduek (dendak, bulegoak, etab.) proiektuan parte hartzea komenigarria da.

B **BILBOKO UDALAK:**

Eskola bidearen sustapenean inplikaturik dauden sail eta zerbitzuak; eta laguntza ematen duten jarduerak:

- › Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila / Espazio publikoan esku-hartzea.
- › Herritarren Segurtasun Saila / Udaltzaingoak trafikoa arautzea eta oinezko, bidaiari eta bizikleta-gidariei izan ditzaketen arrisku jokabideak saihesteko bide-segurtasuneko arauak irakastea.



ESKOLA MAILAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN BESTE MODALITATE BATZUK

Ikastetxe batean, eskola bidearen arrakasta lortzeko aurre-baldintza egokiak ez daudenean, eskola bide jasangarrien antzeko helburuak dituen bestelako modalitate bat bilatzea planteatu liteke, parekoa baina metodologia desberdinarekin:

>> ERABILITAKO GARRAIOAREN ARABERAKO SAILKAPENA

Pedibusa edo oinezko autobusa: Oinezkoentzat eskolarako ibilbide bat zehaztean datza; honetan, aurretiaz zehaztutako zenbait topaleku finkatzen dira bertan umeak batzeko. Behin, ibilbidea eta topalekuak zehaztuta, gurasoek ibilbideko topalekuren batera eraman beharko dituzte umeak. Esperientzia hauek, haurren mugikortasunerako oso atseginak ez diren inguru urbanistikoetara lotuta egoten dira, baina ez beti.

Bizibusa edo bizikletazko autobusa: Pedibusean bezala, ibilbide batzuk zehazten dira parte-hartzaileen etxebizitzetatik ikastetxera, ibilbidea taldean eta segurtasunez egiteko. Parte-hartzaileak batzeko zenbait topaleku zehazten dira.

Garraio publikoa: Haurrek taldean erabiltzen dute garraio publikoa.

Autoa utzi eta ibiltzea/ Autoa utzi eta bizikleta hartzea:

Gurasoek, kotxez eramaten dituzte haurrak azaldutako topaleku horietako bateraino eta, hortik aurrera pedibusa edo bizibusa erabiltzen dute.

Garraio publikoa erabili eta ibiltzea / Garraio publikoa erabili eta bizikleta hartzea: Haurrek garraio publikoa erabiltzen dute bilduko diren topaleku jakin bateraino.



>> BESTELAKO AUKERAK

Astean behin: Bariante honetan, astean behin mugikortasun jasangarriaren eguna finkatzen da eta, egun horretan, parte-hartzaileak ikastetxera oinez edo bizikletaz joateko deialdia egiten da.

Eskola-inguruneak: Ikastetxearen inguru hurbilaren segurtasun eta erosotasun-baldintzak hobetzean datza, oinezko eta bizikletazko desplazamendu bolumena eta haurren autonomia handitzeko asmotan. Kasu honetan, ez da haurren mugimendu ohiturak ezagutzeko aurretiazko analisirik egiten eta ez dira kontuan hartzen gehien erabilitako ibilbideak. Parte-hartze prozesua ez da burutzen eta ezta proiektuaren zabalkundea ere. Soilik, bideko segurtasunaren azterketa tekniko bat egiten da eta beharrezkoak diren neurriak hartu.

Etxearen eta ikastetxearen arteko distantziaren arabera sailkapena: Distantzia handitzean, oinez era autonomoan joateko aukerak jaisten dira eta nagusien laguntza eta autoen erabilera handitzen dira.

DISTANTZIA	ETXETIK IKASTETXERA JOATEKO MODUA	
< 500 m	Autonomia hobetzen du; Ibilbidea oinez egin daiteke eta haurrak bakarrik joan daitezke	
500 m - 1.000 m	Gehienak oinez joaten dira ikastetxera Bizikleta ere erabil daiteke	
1.000 m - 1.500 m	Distantzia oraindik oinez joateko onargarria da Bizikleta izan daiteke gehien erabiltzen duten modua	
1.500 m - 3.000 m	Bizikleta nagusi da Garraio publikoaren alde ere egin daiteke	
3.000 m - 6.000 m	Bizikletan joateko distantzia oraindik onargarria da Garraio publikoaren erabilera areagotu egiten da	



Eskola bideak ezartzeko kontrako aurre-baldintzak dituzten ikastetxeek, eskola bideen modalitateen eta barianteen artetik aukera dezakete eskolako mugikortasun jasangarri bat lortzeko konponbiderik egokiena.



AURRE BALDINTZA	ARAZOA	ESKOLA BIDEAREN BESTE MODALITATE BATZUK
Ikastetxearen kokapena	Ikastetxe baten kokapena, auto pribatuentzat sarbide zaila duenean. Egoera honetan, sarrerak eta irteerak kolapsatu egiten dira	Problematika hau ikusita, auto pribatuak ikastetxe barruraino sartzea gutxitu edo erabat ezabatu behar dugu: Autoa utzi eta ibiltzeko modalitateak, zati handi batean konpon dezake arazoa; horrez gain, erabilera jasangarrien erabilpena eta haurren autonomiaren heziketa bultzatu nahi baditugu, aldi berean eskola bidea, pedibusa eto bizibusa proiektuak planteatu beharko ditugu
Ikastetxearen kokapena	Orografia zaila: Honek bizikletazko eta oinezko desplazamenduak zailtzen ditu	Garraio publikozko eskola bidea; eta garraio publikoa erabili ostean biltzeko modalitatea
Oinezko mugikortasuna	Ikasle gehienak ikastetxetik urrun bizi dira eta garraio publiko edo kotxe pribatuetan mugitzen dira	Auto pribatuetan mugitzen diren ikasleei dagokienez, kontutan hartu beharko litzateke bestelako era jasangarriagoetan ibiltzea, hala nola, bizikletaz edo garraio publikoan. Modalitate hauek bultzatzeke: garraio publikoa, kotxea utzi ostean ibiltzea/bizikleta hartzea, edo garraio publikoa erabili ostean ibiltzea/ bizikleta hartzea. Bizibusa bultzatzea. Eskola-garraioak, aparkatzea debekatuta dagoen leku batean, ikastetxetik kanpo, aparkatzen badu, aparkatu ostean ibiltzeko modalitatea ere planteatu daiteke. Horrela, autobusak ondo aparkatuko luke eta umeek ibilbidearen zati bat oinez egingo lukete
Bideragarritasun teknikoa	Sarbide arriskutsua: Parke arriskutsu bat edo bide-azpiegitura handi bat (zubi, autobide, abiadura handiko kalea) zeharkatu beharra dago	Lehenengo aukera, beste ibilbide bat bilatzea izango litzateke eskola biderako, horrela, bideko gune arriskutsuenak saihestuz. Hau posible ez bada, pedibusa edo bizibusa planteatu daiteke
Ikastetxea prest egotea	Ikastetxea ez dago honelako planetamendu bat egiteko prest azaltzen	Udalak, auzoko beste entitateak batzuekin elkarlanean, ikastetxearen inguruan neurriak har ditzake

4. METODOLOGIA - INPLEMENTAZIO SEKUENTZIA URRATSEZ URRATS

A. AURRE BALDINTZAK

Bilboko barruti eta auzo bakoitzaren ezaugarri morfologikoek, ikastetxe bakoitzari bere-bereak dituen baldintza eta berezitasunak ematen dizkio, bai maila fisikoan eta bai sozialean. Ikastetxe bakoitzak, arazo desberdinak planteatzen ditu mugikortasunari dagokionez, baita heziketa-proiektu desberdinak ere. Honi, ikasleen bizilekutik ikastetxera dagoen distantzia eta ikastetxeak dituen berezitasun fisikoak gehitzen badizkiogu, argi dago ikastetxe bakoitzak aurre-baldintza jakin batzuk izango dituela eta, proiektuaren arrakasta eragotz dezaketen aurre-baldintza horiek, proiektuaren helburuak lortzeko estrategiak finkatzen direnean kontuan hartu beharrekoak izango dira.



ESKOLA BIDEAK EZARTZEKO AURRE BALDINTZA EGOKIAK

Kokapena: Ikastetxea, erabilpen ugari dituen bizitegi-gune konpaktu eta zerratu batean egoteak, eskolarako joan-etorri jasangarriak errazten ditu. Gehienetan, hirigune konpaktu batean kokatutako guneetan, oinezkoen desplazamendu gehiago izaten dira. Ikastetxearen eta ikasleen bizilekuen arteko hurbiltasunak ere zerikusi handia izaten du erabiliko den garraiobidea aukeratzean.

Oinezko mugikortasuna: Oinez joatearen portzentajea oso handia da eskolara joateko orduan.

Bideragarritasun teknikoak: Badago bideragarritasun teknikoak, mugikortasun-baldintzarik oneak dituzten ibilbideak ahalbidetzeko.

Ikastetxea prest egotea: Zuzendaritzak edo eskola-kontseiluak berretsita. Ikastetxeak hartutako konpromisoa, proiektuaren fase guztietan parte hartzera luzatu behar da.



B. AURRETIAZKO JOKABIDEAK

B I. Talde dinamizatzailer bat sortzea: Hauxe da proiektuaren eragilea, jarraitu beharreko bidea markatzen duena. Jatorri desberdina izan dezaketen taldearen kideek (gurasoak, irakasleak, elkarteak, administrazio publikoa, etab.) honelako proiektu bat aurrera eramateko beharrezkoa den gogo bizia eta denbora izan behar dute.

Talde honek, barne helburu argi batzuk ezarri beharko ditu, barne antolaketa diseinatu, lan metodo bat pestatu eta proiektua garatu. Udala, ekimen hauen sustatzailea izan daiteke edo geroago bat egin dezake horiekin.

B II. Proiektuaren definizioa: Proiektuaren deskribapena eta helburuak hasieratik argi gelditu behar dira. Hauen arabera, proiektu bat edo beste planteatuko da. Lan metodologia eta burutzeko erabiliko diren bideak ere finkatu beharko dira. Hasierako lanetarako jarrai daitezkeen hiru formula daude. Hauek elkarren osagarriak izan daitezke eta nahi bezala konbinatu. Hona hemen: hiriko elkartearen edota ikastetxearen lan boluntarioa, administrazioetik kontratatutako pertsonala erabiltzea eta azpi-kontratazioa.

C. DIAGNOSTIKOA

Konprometitutako agenteek, ibilbidearen mugikortasun, segurtasun eta haurren autonomiari buruzko informazio kuantitatibo eta kualitatiboa batzen dute. Gero, hau aztertu, arazoak identifikatu eta hobekuntza ekintzak proposatzen dituzte.

C I. Mapa soziala egitea: Proiektua garatu ahala, harekin bat egin dezaketen entitate sozialen identifikazioa.

C II. Ikastetxera joateko mugikortasunaren analisia: Hasierako egoera ezagutzeko, ikasleak ikastetxera nola joaten diren zehaztu behar da, nolako segurtasun edo segurtasun falta sumatzen duten beraiek eta familiek, mugimenduetan zer nolako autonomia duten, mugimendu eredu aldaketen aurrean duten jarrera, etxebizitza eta ikastetxearen artean dagoen distantzia, etab. Inkestak, informazio hau guztia ezagutzeko eta proiektuan parte hartzen duten agente guztiak inplikatzeko modu ona dira. Emaizten analisi eta hausnarketaren ostean, hauek jendaurrean jarriko dira proiektuaren zabalkundea egiteko.



C III. Hiri espazioaren diagnostikoa: Pauso honetan, haurren segurtasuna eta oinezkoak mugitzeko erosotasuna abiapuntu izanda, ikastetxearen inguruko hiri espazioak dituen arazo eta aukerak aztertu behar dira. Inguruaren azterketa honetan ikasleak, familiak eta interesatuta dauden auzoko bestelako kolektibo batzuk kontutan hartuko dira.


C IV. Mugikortasunari buruzko txostena: Inkesten estatistikak aztertu ondoren, ekintza-plana prestatzeko txosten bat egin behar da. Txostenak hurrengo informazioa jaso beharko du: ikasleak bizi diren auzoak, urruntasuna edo hurbiltasuna, mugimenduetan dagoen autonomia maila, umeei lagun egiteko arrazoia, etxetik ikastetxera mugitzeko dauden moduen banaketa; lortu nahi den garraio sistema, desplazamenduetan emandako denbora, umeei autonomia handiagoa lortzen lagunduko luketen egoerak, ibilbidearen balorazioa.

D. PROIEKTUAREN EKINTZA PLANA ETA PROIEKTUA GAUZATZEA


Diagnostiko-fasea amaituta, eskola bidearen lehenengo proposamenak egin behar dira. Honetan, ibilbideak eta topaketa puntuak definitu behar dira eta baita eskola bidearen modalitatea ere. Ikastetxe bakoitzak bere berezitasunak ditu eta eskola bidea bere proiektu pedagogikora egokituko du. Lehen hobekuntza-proposamen hauetatik aurrera, ekintza zehatzak burutzen dira.

D I. Heziketa-ekintzak umeekin:

Ikastetxeetan, ume eta nerabeekin jarduerak gara daitezke. Heziketa-programan zeharkako edukiak ezartzea derrigorrezkoa izan beharko litzateke, besteak beste, balioetan heztea eta ohitura osasungarri, jasangarri eta seguruetan heztea ezartzea. Proposamen batzuek, umeei parte hartzeko organo bat sortzea planteatzen dute; horrela herritar aktiboen rola indatuko da. Ikasleak, ikastetxearen ingurua ezagutzeko, kalera atera genitzake, espazio publikoen analisi eta proposamenen parte-hartzaile egiteko; eta beraien eguneroko mugikortasun ereduak eurekin azter genitzake.



D II. Ekintza teknikoak espazio publikoan: Hauek, ikastetxea kokatuta dagoen lekua ezaugarrietara moldatuko dira (biztanleria dentsitatea, hiri morfologia, ibilgailuen trafiko intentsitatea). Eskola bidea martxan jartzeko, zenbait segurtasun eta autonomia-helburu lortu eta bete behar dira, eta horretarako, ikastetxe bakoitzak Bilboko Udalarri jakinaraziko dizkio espazio publikoan egin behar diren aldaketak. Udalak, proposamen tekniko hauek segurtasunaren ikuspuntutik aztertuko ditu hurrengo abiapuntuekin: Oinez edo bizikletaz mugitzeko arriskuak gutxitu eta irisgarritasuna hobetu, herritarrak oztoporik gabe desplazatu ahal izateko. Ondorioz, gerta daiteke orain arte eskola bideetan, oinezkoek asko erabiltzen zituzten kale batzuk kentzea, seguruak izateko baldintza fisikoak bete ezin direlako. Proposamenen iragankortasuna, irizpideen (ezinbestekoa, komenigarria) eta aurrekontuen araberakoa izango da.



FKINTZEN ADIBIDEAK

- Seinale bertikal eta horizontalen hobekuntza.
- Trafikoa baretzeko neurriak.
- Aparkalekuen arauketa.
- Oztopo arkitektonikoak kentzea.
- Hiri-altzariak beste toki batean kokatzea.
- Abiadura murriztaileen erabilpena.
- Ikastetxe inguruetan zuhaitzak berriro landatzea eta zuhaixka eta zuhaitzak inautzea, zirkulazioari begira, gidariek zein oinezkoek hobeto ikusteko.

D III. Zabalkundeko ekintzak: Ematen diren pauso guztiak, proiektua hedatzeko eta laguntzaile gehiago bilatzeko baliagarriak izan daitezke. Hedapen hau, inplikaturik dauden kolektiboen artean eta inguru sozialari begira egin behar da, eskura dauden komunikabideen bitartez. Adibidez, mugikortasunaren inguruko ekintza eta jai publikoen bitartez, proiektua ezagutzera eman daiteke. Beste alde batetik, eskolara oinez doazen horiek animatzea, horiei onarpena agertzea eta saritzea pizgarri onak izan daitezke.

Ikasgelan, heziketa-ekintzez gain, nagusientzako informazio tailerrak ere egin daitezke. Familiei dagokienez, informazio gutunak ere bidal dakizkieke edo umeak eurak izan daitezela euren gurasoei proiektua azaltzeko gutun bat idazten dietenak. Ikastetxearen web-orria ere, proiektuaren hedapena egiteko tresna egokia da.

Ibilbideen seinaleztapena ere metodo ona da. Horretarako, eskola bidearen seinaleak jar daitezke ikastetxean, eskola bidearen mugetan eta ibilbidean zehar umeak elkartzeko zehaztutako topalekuetan. Horrez gain, ibilbidean zehar dauden oinezkoentzako pasabideetan eta zenbait puntutan ere eskola bidearen logoa margotu daiteke.

Gainera, parte hartzen duten ume eta nerabe laguntzaileek seinaleak eraman ditzakete, hala nola, peto horia, zapiak, etab. Proiektuaz eta parte-hartzearen aukeraz aurretiaz informatuta egongo dira establezimendu laguntzaileak ere. Hauek, behar izanez gero, laguntza emango diete umeei eta behar bezala seinaleztatuta egongo dira.

Urtero, ikastetxeetara ume eta familia berriak iristean, berriro ere proiektuaz eta honek dituen helburuez sentsibilizatu behar da hezkuntza-komunitatea, eskola bidearen proiektuaren zabalkundea eginez eta proiektua sustatuz. Hedapen-ekintzak, eskola bidea hasi orduko, ikasturte hasieran areagotuko dira. Ikasturtearen erdialdean, eguraldi ona heltzen denean, berriro ere landu daiteke proiektua.

D IV. Proiektua gauzatzea: Ikastetxe bakoitzak, gehien komeni zaion eskola bideen eredua aukeratu beharko du, bere helburu eta lehentasunekin, eta gurasoen konpromiso eta laguntza-mailarekin bat datorrena, hain zuzen ere.

Orokorrean, eskola bidea, inplikaturik dauden agenteek behar besteko baldintzak betetzen direla iritzita hasten da, hau da, behin proposamen teknikoak, heziketa eta zabalkunde-proposamenak egin ondoren; hots:

- ▶ Bide segurtasunerako beharrezkotzat jotzen diren espazio publikoko hobekuntza lanak burutu ondoren.
- ▶ Ikasleekin hezkuntza-ekintzak egin ondoren.
- ▶ Gurasoei eskola bidearen ibilbide eta funtzionamenduari buruzko informazioa eman ondoren.
- ▶ Jarraitu beharreko ibilbidea seinaleztatu ondoren.

Proiektuaren sustapena, ezinbesteko ekintza da arrakasta ziurtatzeko. Lehenengo egunetan, inplikaturik dauden agenteek egin beharreko ekintzen planifikazio zehatza egitea beharrezkoa da, baita agente hauek egunero ematen duten informazioa




batzea ere. Informazio honek jarraipen-batzordeari proiektuan behar beste aldaketa egiten lagunduko dio. Zentzu honetan, garrantzitsua da proiektuan parte hartzen duten ikasleek esperientziaren ikuspuntuak azaltzea; eta, irakasleen laguntzaz, bizipen hauek interpretatzeko gai izatea.

E. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Programa jada martxan dagoenean, jarraipen egoki batek, ezarritako helburuak lortzeko funtzionatzen ari diren eta funtzionatzen ari ez diren estrategiak zehazteko balioko du, eta azken batean, proiektuan dagoen parte-hartzea lehendik itxaroten zena den ala ez ikustea ahalbidetuko du.

Proiektu bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa ikastetxe bakoitzak ezartzen duen aldizkakotasunarekin aztertzen da.

Talde dinamizatzailerak ebaluazioa nork egin behar duen eta zein tresna (jarraipen batzarrak, deskribapen memoriak, barne-egunkaria, galdetegiak, ebaluazio txostenak, etab.) erabili behar den erabakitzen duena.



E I. Emaitzen ebaluazioa: Proiektuaren helburuak (autonomia maila, segurtasuna, garraio aktibo bidezko desplazamendua, etab.) lortu diren ala ez jakiten laguntzen du. Adierazle batzuk kuantitatiboak eta beste batzuk kualitatiboak izango dira.

E II. Prozesuaren ebaluazioa: Hasiera batean finkatutako ekintzak egin diren ala ez, eta proiektuan konprometitutako agenteen inplikazioa eta gogobetetasuna behar bestekoa izan den ala ez aztertzen laguntzen du.

E III. Eraginaren ebaluazioa: Azken helburua lortu den ala ez aztertzen laguntzen du, hau da, parte-hartzaileen jarrera aldatu den ala ez aztertzen. Jarrera aldaketa hau mugikortasun kultura berri bati buruzkoa izango da, mugikortasun kultura jasangarriagoa, osasungarriagoa eta autonomoagoa alegia. Horrez gain, kultura sozial berri bat azalduko zaigu, umeen garrantziaren eta hauek herritar bezala duten garrantziaren ingurukoa.

BIDE LAGUNAK



Bide Lagunak, Zamakola Juan Delmas ikastetxea burutzen ari den ekimena. Mapa honek, eskola bideen ibilbide eta topalekuak adierazten ditu (gurasoek topalekuetaraino lagun egiten diete umei). "Bide Lagunak" ere azaltzen ditu. Horietan nagusiagoak diren ikasleek 8 eta 11 urte bitarteko ikasleei lagun egiten diete.

5. NOLA LAGUNTZEN DU BILBOKO UDALAK?

Bilboko Udala, prozesu guztiarekin laguntzera eta proiektua bideragarria izateko beharrezkoak diren ekimen guztiak era koordinatuan egitera konprometitu da. Hauek zeharkako proiektuak dira eta udalaren sail batean baino gehiagotan dute eragina. Bi dira eraginpeko sailak:

>> MUGIKORTASUN ETA JASANGARRITASUN SAILA

Sail honek, espazio publikoan mugikortasuna eta bide segurtasuna hobetzeko jokabide fisikoari laguntza emango dio. Udal teknikariek, ikastetxeek bidaltzen dizkieten proposamen teknikoak aztertuko dituzte, segurtasunaren ikuspuntutik eta oinezko eta bizikletazko desplazamenduetan eman daitezkeen arriskuak gutxitzeko asmoz, irisgarritasuna hobetuz herritar guztiak oztoporik gabe mugitu ahal izateko. Ebaluazioaren ostean, eskatutako ekintzetarako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta teknikoak esleitu dituzte. Proposamenak gauzatzeko denborak, irizpideen (nahitaezkoa, komenigarria) eta aurrekontuen arabera ezarriko dituzte.

Sail honek, diagnostiko-fasean ere lagundu dezake, ikastetxearen inguruan dauden lekuen erabileraren informazio teknikoa emanez (burutzen edo burutzear dauden obra publikoak; inguruko bide diziplinaren egoera eta sarritan sortzen diren arazoak, etab.).

>> HERRITARREN SEGURTASUN SAILA


Trafikoaren erregulazioa Udalaren eskumena denez gero, Udalak udaltzainen bat jartzea baloratu dezake, ikastetxeko sarrera eta irteera-orduetan kotxeen joan etorria arautzeko, zirkulazio arauak betetzen direla eta gidariek abiadura errespetatzen dutela bermatzeko. Horrela, arrisku egoera ugari saihestuko lirateke. Sail honen beste eskumen bat, oinezkoek, bidaiariek eta bizikleta-gidariek, egin ahal dituzten jokabide arriskutsuen prebentzioaren arloan heziketa ematea da. Hortaz, bide-heziketako saioak sartu ahal dira curriculumean.



6. FINANTZAKETA

Alde asko, lan boluntarioarekin bete daitezke baina, beti egongo dira era horretan erantzuna emateko zailak diren atalak. Horregatik, hauek zenbatu eta finantzaketa bilatu beharko da. Bilboko Udalak berak egingo dituen atalak, bere gain hartuko ditu, berau, udala, izango delarik partida-atal hauen aurrekontuak egingo dituen.

Eusko Jaurlaritzak, ekimen hauek sustatzeko zenbait neurri ezarri ditu; 2013-2020rako Osasun Planaren helburuen barruan kokatuta, Eusko Jaurlaritzak, ikasleen guraso-elkarteei eta EHAeko Irakaskuntza Kooperatibei laguntza ekonomikoak emango dizkie eskola bideen sormena eta dinamizazioa garatzeko.



**ESKOLA
BIDEEN
PROIEKTUAK**
GAUZATZEKO GIDA



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO